

## ELKARTEAK-FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Aliantza mota bakoitza, ondo bereizitako estrategien emaitza da. Gure enpresaren elkarte mota, erosle eta hornitzaileen arteko harremanak, materialen eskuragarritasuna bermatzekoa izango da. Hau, bere jarduera aurrera eramateko beharrezkoak dituzten baliabideen eskuragarritasuna bermatzea lortzean datza.

Gure proiektuak funtziona dezan, konfiantzazko hornitzaile eta bazkideen arteko harremana bultzatuko dugu, horiek baitira azken finean gure salerosketa guztien oinarria. Hornitzaileari dagokionez, bi iturritatik eskuratuko ditugu gure produktuak. Alde batetik, eskuz eginiko produktuak saltzen dituen gertuko emakume bati haren produktuekiko interesa adieraziko diogu eta jakinik produktuak pertsonalizatzeko malgutasun hori eskaintzen duela, guretzako lan egiteko ideia luzatuko diogu. Horrez gain, tokian tokiko pertsona ekintzaile bati bere proiektua aurrera modu egoki batean eramaten lagunduko diogu. Bestalde, eskuz eginikoak ez diren produktuen eskaera enpresa internazional bati egingo diogu. Jakinik hainbat enpresa daudela ondasun mota hau eskaintzen dutenak, horien kokalekua kontuan hartuko dugu gure kostuak ahalik eta gehien murriztu daitezen.